

**08 ekaina – 12.alea**

## Merezi izan du!

Urtebete t'erdiko negoziazioaren ondoren, eta edukietan aurre-pausu garrantzitsuak lortuta, Mahaian gauden sindikatu guztiek ofizialki 2008ko Uztailean sinatzea adostu dugu.

LABetik balorazio positiboa egiten du, bai lortutakoaz baita urte luze honetan egindako lanaz.

Lorpenetaz, hainbat aspektu nabarmendu beharrekoak dira:

- 2008-2009 ikasturtean ibiltarien lan poltsa bat egingo da. Lan kontratu mota honekin, langileak gehienez 9 hilabetetan egongo dira kontratatuak eta asteburuak kobratuko dituzte.

- 1. mailako senideei, senar-emazte edo adin txikiko seme-alabekin mediku kontsultetara joateko baimena. Honen erabilitako denbora hezitzaileek hurrengo 2 hilabeteetan erreuperatu beharko du. Baimen hau ez da ordezkaturia izango egoera berezietan salbu. 2008/2009 ikasturtean hezitzaile bakoitzari 211 lanegun dagozkio Irailaren 1etik Uztailaren 31rarte, biak barne. 211 egun hauetatik 207 hurrei arreta zuzena izango dira. Familiei eskainiko zaien urteko egutegia 209 egunekoa izango da.

Irailean lehenengo 3 egunak haurrik gabe izango dira eta uztaileko azken eguna ere.

- 2009/2010 ikasturtean hezitzaile bakoitzari 210 lanegun dagozkio Irailaren batetik Uztailaren 31rarte, biak barne.

- 210 lanegun hauetatik 206 hurrei arreta zuzen a emateko izango dira eta Haurreskolak 208 egun egongo dira irekita. Familiei eskainiko zaien urteko egutegia 209 egunekoa izango da. Irailean lehenengo 3 egunak haurrik gabe izango dira eta uztaileko azken eguna ere.

- Haurreskoletako koordinatzaileek honako dedikazio hau izango dute koordinazio lanerako unitate kopuruen arabera:

UNITATE KOPURUA	EGUNEKO DEDIKAZIOA
8tik gora	Lanaldi osoa
6 edo 7	Lanaldi erdia
4 edo 5	90 minutu
2 edo 3	60 minutu
1	45 minutu

Eta baita ere urteko 770 euroko lan saria. Koordinatzaileentzat bereziki den formakuntzaren egutegia eta edukinak hurrengo asteetan egingo diren Mahai Parekideetan zehaztuko dira.

**<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/haur>**

Araban	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparraldean
Fermin Lasuen, 13 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 <b>irakaskuntzaaraba2@ labsindikatu.org</b>	Rekalde Zumarkalea, 62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 <b>irakaskuntzabizkaia1@ labsindikatu.org</b>	San Bladi, 1 behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 <b>irakaskuntzagipuzkoa2@ labsindikatu.org</b>	Martxelo Zelaieta, 75-2A 31001 Iruñea Telf.: 948 210 422 Faxa.: 948 221 276 <b>irakaskuntzanafarroa1@ labsindikatu.org</b>	7 Coursic Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 <b>baiona@ labsindikatu.org</b>

• Lanaldi osoko kontratua duen hezitzaileak eguneko lanaldia 7 ordukoa izango da, horietatik 6 ordu eta 15 minutu hurrei zuzeneko arreta emateko izango dira, eta gainerako 45 minutuak berriz prestaketarako. Prestaketetarako denbora astean pilatu ahal izango da. Bestalde, formakuntzarako 100 ordu eskaini beharko dira; hauetatik 50 kreditatu beharrekoak izango dira ziurtagiri ofizialen bidez eta gainontzekoak erregistro pertsonal baten bidez non zehatz mehatz azaldu beharko den denbora horren erabilera.

• Gaixotasun kronikoren bat edo mugitzeko arazoak dituzten senideei laguntzeko baimena: ikasturte bakoitzeko langileak ordaindutako 60 ordu artekoa (gaur egun 50ekoa)

• 1.mailako senideei, senar-emazte edo adin txikiko seme-alabekin mediku kontsultetara joateko baimena. Honen erabilitako denbora hezitzaileek hurrengo 2 hilabeteetan erreperatu beharko du. Baimen hau ez da ordezkaturik izango egoera berezietan salbu.

• Laneko arropa: 50 euro urtean.

• Eszedentziak gutxienez 4 hilabeteak har daitezke eta gehienez 5 urte. (lehen gutxienez urtebetekoa zen eta 5 urte gehienez)

• Norberaren eginkizunetarako baimena: Lehen gutxienez 5 egun zeuden baimen honetan, enpresak proposatu du 7 egutegi eguneko baimena eta egunak elkarren segidagoak izatea. Eztabaida luze eta hainbat bilera eta gero salbuespeneko kasuetan (familia eta lana uztartzeko beharrak direla eta, edo lehen mailako odol senideen gaixotasun larrien kasuetan) iraupena gutxienez 3 egunetakoa onartu zen.

Nahiz eta Lan Hitzarmena lotuta egon, oraindik badaude puntu batzuk mahai parekideen bitartez adostu beharrekoak. Hau da; ibiltarien lan poltsa, koordinatzaileen araudia, 6 orduko arreta zuzena, LEParen jarraipena, ...

LAB sindikatuak Lan Hitzarmen berri honen balorazioa positibo bezala baloratu nahi du. Gauza garrantzitsuak lortu dira; lan egunak jaitea, koordinatzaileentzat denbora gehiago, soldataren igoera, berdintasun legea jasotzea, 625 lanpostu finko gutxienez 2 urteetan, seme alabekin medikuarenera joateko baimena ... Jakin badakigu, gauza batzuk bidean geratu direla eta ez dugu ezkutatuko negoziazio prozesua gogorra eta luzea izan dela. Honetaz gain, esan beharra daukagu LEPak akordioa asko baldintzatu duela eta testuinguru honetan Lan Hitzarmen berria ulertu behar da.

Ez pentsatu bidean gelditu diren gauzak ahaztu ditugula, erakorria den sindikatu hau jadanik hasi da lanean hurrengo lan hitzarmenean. Urteetako esperientziak esaten digu zuen laguntza eta animuak ezinbestekoak izango direla hurrengo urteetan guztion lan baldintzak hobetzeko. Beraz, ...

## **Gora Partzuergoko langileak!!! Animo eta aurrera!!!**

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/haur>

<b>Araban</b>	<b>Bizkaian</b>	<b>Gipuzkoan</b>	<b>Nafarroan</b>	<b>Iparraldean</b>
Fermin Lasuen, 13 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 <b>irakaskuntzaaraba2@ labsindikatu.org</b>	Rekalde Zumarkalea, 62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 <b>irakaskuntzabizkaia1@ labsindikatu.org</b>	San Bladi, 1 behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 <b>irakaskuntzagipuzkoa2@ labsindikatu.org</b>	Martxelo Zelaieta, 75-2A 31001 Iruñea Telf.: 948 210 422 Faxa.: 948 221 276 <b>irakaskuntzanafarroa1@ labsindikatu.org</b>	7 Coursic Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 <b>baiona@ labsindikatu.org</b>

	<b>2005-2006rako lan hitzarmena</b>	<b>2008-2009rako lan hitzarmenena</b>
<b>IRAUPENA</b>	2006ko abenduaren 31ra arte. Antolakuntza 2007ko uztailaren 31ra arte.	2009ko abenduaren 31ra arte. Antolakuntza 2010ko uztailaren 31ra arte
<b>ORDAINSARIAK</b>	2005eko igoera.: %3a 2006ko igoera: % 3,16a Laneko arropa: 0€	2007ko igoera: %4,75a 2008ko igoera: % 4,22a. 2009ko lehenengo hilabeteetan berrazterketa. Laneko arropa 50€urteko.
<b>LANALDIA</b>	2005-2006ko ikasturtea: 213 lan egun. Umeekin 208 2006-2007ko ikasturtea: 213 lan egun. Umeekin 208 4 txandakako egun aste santuan, gabonetan edo uztailean hartzeko. 3 egun irailean + 2 uztailean ume gabe	2008-2009 ikasturtea: 211 lan egun. Umeekin 207. 2009-2010 ikasturtea: 210 lan egun. Umeekin 206. 2 txandako egun urtean zehar hartu ahal izateko. 3 egun irailean + 1 uztailean ume gabe.
<b>KOORDINATZAILEAK</b>	6 gela baino gehiago: 90' eguneko. 2 eta 6 gelakoak: 60' eguneko. 1 eta 2 gelakoak. 45' eguneko. Formakuntzari buruz ezer ez. Ordainsaria: 0€	8 gelatik gora: lanaldi osoa liberatuta. 6 eta 7 gelakoak: lanaldi erdia. 4 eta 5 gelakoak: 90' eguneko. 2 eta 3 gelakoak. 60' eguneko. Gela bakarrekoak: 45' eguneko. Berariazko formakuntza diseinatuko da Ordainsaria: 770€urteko
<b>RATIOAK</b>	Dekretuan agertzen direnak.	Mantentzen dira gaur egunekoak
<b>FORMAKUNTZA</b>	101 ordu urteko. Hauetatik 60 ordu ziurtagiri ofizialen bitartez kreditatzekoa. Beste 40 ordu: erregistro pertsonalen bitartez justifikatu. Euskalduntzea. Perfil gabekoentzat liberazio ordu batzuk	100 ordu urteko. Hauetatik 50 ordu ziurtagiri ofizialen bitartez kreditatzekoa. Beste 50 ordu: erregistro perstonalen bitartez justifikatu. Euskalduntzea. 2009-2010 ikasturterako hobekuntza profesionala aztertu eta bultzatu. (langile guztiontzat)

**informatz****en**

<b>LIZENTZIAK ETA BAIMENAK</b>	<p><b>36. artikulua.</b> Ohikoz etxebizitzaz aldatzeagatiko lizentzia. Zehaztu gabe.(partzuergoak 2 urtekoa eskatzen zuen)</p> <p><b>39. art.</b> gaixotasun kronikoren bat edo mugitzeko arazoak dituzten senideei laguntzeko baimena: ordaindutako 50 ordu.</p> <p><b>41.art.</b> lehen mailako senideei senar emazte edo adin txikiko seme-alabekin mediku kontsultetara joateko baimena: ez dago ezer.</p> <p><b>47. art.</b> norberaren eginkizunetarako baimena</p> <p><b>47.2. art.</b> eszedentziak: borondatezko eszedentzia gutxienez urtebetekoa izango da.</p> <p><b>48. art.</b> genero indarkeriaren biktima den langilearen lanaldi murrizketa, ihardunaldiaren egokitzapena eta lantokiaren aldaketa. Ez da ezer aipatzen.</p> <p><b>54. art.</b> segurtasuna eta lan osasuna. Ezer ez.</p>	<p><b>36. artikulua.</b> Ohikoz etxebizitzaz aldatzeagatiko lizentzia. Urtebete pasatu arte ezin izango da berriro lizentzia hasu hartu</p> <p><b>39. art.</b> gaixotasun kronikoren bat edo mugitzeko arazoak dituzten senideei laguntzeko baimena: ordaindutako 60 ordu.</p> <p><b>41.art.</b> lehen mailako senideei senar emazte edo adin txikiko seme-alabekin mediku kontsultetara joateko baimena: erabilitako denbora hurrengo bi hilabeteetan erreperatu behar da.</p> <p><b>47. art.</b> norberaren eginkizunetarako baimena. 7 egunetako baimena edo familia eta lana uztartzeko bada 3 egun gutxieneko eskaria.</p> <p><b>47.2. art.</b> eszedentziak: borondatezko eszedentzia gutxienez 4 hilabetekoa izango da.</p> <p><b>48. art.</b> genero indarkeriaren biktima den langilearen lanaldi murrizketa, ihardunaldiaren egokitzapena eta lantokiaren aldaketa.</p> <p><b>54. art.</b> segurtasuna eta lan osasuna. 7 orduko kreditua.</p>
<b>BESTE BATZUK</b>	<p>Berdintasun legean oinarrituta lizentzia eta baimenetan lege honek agintzen duena artikulua ezberdinetan jasotzea.</p> <p>625 lan postu finko 2 urteetan</p> <p>Gutxienez 8 ibiltari lanpostu 9 hilabeteko kontratuarekin (mahai parekidean zehaztuko da nola arautu)</p>	

informatzeko